

# Eika Elkarte Kooperatiboa: “Hara, lankidetzan euskara!”



## Eika Sociedad Cooperativa: “¡Anda, trabajando en euskera!”

Enpresetan euskararen normalizazioa lortu daitekeenaren eredu dugu Etxebarrin (Bizkaian) dagoen Eika Elkarte Kooperatiboa. Duela zazpi urte abian jarri zuen euskara plana Emunen eskutik. Prozesua luzea izaten ari da eta zailtasunak ere sortu dira, baina, esate baterako, Batzar Orokorraren ahozkoa %100 euskaraz egitea lortu dute.

Eika egosketako osagaiak egiten dituen MCCren barruan dagoen 540 langilez osaturiko enpresa da. Etxebarrikoaz gain, Txekian, Mexikoko eta Polonian ere plantak ditu.

2000 urtean enpresako zati batek ekin zion euskara planari, errazenetik hasita helburu zehatzak lortuz. “Hasieran erabilera taldeak borondatezkoak ziren. Pegatinak, kartelak eta horrelakoak euskaratzen hasi ginen. Baina aurrera egiteko euskarak enpresako beste gaien moduko tratamendua izatea lortu behar zela, instituzionalizatzeko beharra zegoela ikusi genuen. 2003 urtean euskararen normalizazioa enpresaren gestioaren barruan sartu genuen”, adierazi digu Leire Mugerza euskara koordinatzaileak. Hirugarren urtearen amaieran euskararen eskuliburua idatzi zuten, bertan hizkuntza politika, giza baliabideak eta materialak, hizkuntza irizpideak nahiz eskakizunak eta neurketa eta hobekuntza finkatu zituzten.

2005ean etorkizunean noraino heldu nahi duten edo iparrari buruzko hausnarketa hasi zuten, eta helburua lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea zela definitu zuten. 2006an iparra findu egin dute: “Eikako lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea eta inguruan eragile moduan jardutea urtean pare bat ekingiza eginez”.

Une hauetan Euskara Batzordeak proposatutako hizkuntza politika organoetan eta Laguntzaile Batzarretan langile guztiekin kontrastatzen eta adosten ari dira.

### Lorpenak

Zazpi urte hauetan etengabe motibazioa, erabilera eta ezagutza arloak landu eta langileen inplikazioari esker lortutako batzuk hauek dira: azken hiru urteetan Euskararen Eguna antolatu dute Eikakoek, Batzar Orokorrean ahozkoa %100 euskaraz egiten dute, produkzioa idatzi tekniko berriak

euskaraz sortzen dira eta Prisma II enpresako aktiboak eta mantentze-lanak kudeatzen dituen aplikazio informatikoa euskara hutsean erabiltzen dute.

“Euskara planarekin hasi ginenean euskararen ezagutza handia zen langileen artean, %83koa, baina denek ez zuten euskaraz egiten. Euskaldunok, sarritan, laneko kontutan erdaraz egiten dugu eta ohitura hori aldatu egin behar dugu. Euskara ez da eskolan, etxean eta umeekin egiteko bakarrik”, gaineratu du Mugerzak.

“Lantokian erdaraz aritzeko dugun ohitura aldatu behar dugu. Euskara ez da eskolan, etxean eta umeekin egiteko bakarrik”.

“Debemos cambiar la costumbre de hablar en castellano en el trabajo. No hay que limitar el euskera al entorno escolar, familiar o del hogar”.

La empresa Eika Sociedad Cooperativa, con sede en Etxebarria (Bizkaia), es un claro ejemplo de que es posible conseguir la normalización del euskera en las empresas. Hace siete años puso en marcha un plan de euskera de la mano de Emun. El proceso está resultando largo y, además, han surgido dificultades, pero, por poner un ejemplo, se ha logrado que el 100% de las sesiones orales de la Asamblea General se lleve a cabo en euskera.

Eika, perteneciente al Grupo MCC, es una empresa dedicada a la fabricación de componentes para cocción y cuenta con 540 trabajadores. Además de la planta situada en Etxebarria, cuenta también con plantas en la República Checa, México y Polonia.

En 2000, parte de la empresa inició un plan de euskera que, comenzando por las cosas más sencillas, ha conseguido unos claros objetivos. “Al principio los grupos de uso eran voluntarios. Comenzamos a traducir a euskera pegatinas, carteles y cosas así. Pero, nos dimos cuenta de que para avanzar, era necesario conseguir que el euskera recibiera en la empresa el mismo tratamiento que otras materias; había que institucionalizarlo. En 2003 introdujimos la normalización del uso del euskera en la gestión de la empresa”, nos comenta Leire Mugerza, coordinadora de euskera. A finales del tercer año, se redactó un manual del plan de euskera donde se establecían la política lingüística, los recursos materiales y humanos y los criterios lingüísticos de perfil, de medición y de mejora.

En 2005, dio comienzo un estudio que pretendía saber hasta dónde se proponían llegar en el futuro, y en él se definió como objetivo que el euskera fuera la lengua de trabajo y de servicio. En 2006, han pulido dicho objetivo: “El euskera será la lengua de trabajo y de servicio y actuará como dinamizador, llevando a cabo un par de actividades anuales”.

En este momento los objetivos están siendo contrastados y acordados con todos los trabajadores en los órganos encargados de la política lingüística, los cuales fueron propuestos por la Comisión de Euskera y las Asambleas de Auxiliares.

### Logros

Estos son algunos de los logros que se han alcanzado gracias a la implicación de los trabajadores y al constante trabajo en el ámbito de la motivación, el uso y el conocimiento que se ha llevado a cabo durante estos siete años: los últimos tres años en Eika se ha organizado el Día del Euskera, el 100% de la sesión oral de la Asamblea General se hace en euskera, los nuevos escritos técnicos de producción se crean en euskera y la aplicación informática Prisma II que gestiona los activos de la empresa y los trabajos de mantenimiento se usa sólo en euskera.

“Cuando pusimos en marcha el plan de euskera, muchos de los trabajadores ya sabían euskera, el 83%, pero no todos lo utilizaban. Los vasos, en muchas ocasiones, tendemos a hablar en castellano sobre temas laborales y debemos cambiar esa costumbre. No hay que limitar el euskera a al entorno escolar, familiar o del hogar”, añade Mugerza.

hori aldatu egin behar dugu. Euskara ez da eskolan, etxean eta umeekin egiteko bakarrik”, gaineratu du Mugerzak.